## ZORTZI POEMA

(Giovanni Pascoli)

1855-1912

### I

*Fides*

Zurbillik eguzkia gainbera doala
Ta nekostak urre leun antza emotzan,
Amak bere umeari onela zirautsan:
«Olakoxe baratz bat dago an goi-goian»,
Urrezko ostoz, urrezko lore ta zugatzez
Umeak ames goxo dagian artean,
Ekaitz zakar zoroan mende intziri dagi
Nekostak, illeta-gau dirudin gabean.

### II

*Umezurtz*

Edurra mara-mara, beera, beera dator...
Seaska kulunkaz da entzuten neurtua;
Atzak agoan, negar dagi ume batek;
Atsu aldamenean or atso larua.
«Seaska biran lili ta larrosak dagoz,
Baratz osos», abesten dautsa erdi-lua.
Loak artzen dau mende baratzean aurra;
Edurra mara-mara, beera dator, beera...

### III

*Urriñako jai*

Muga bageko jotots illak dardar dagi,
Aazruzacaren albaiñ-oial leun atzean
Urrin-jaietakoak egin lez urrean.



Zeruk buru-kaskoa estalgetzen dabe
Osasunaz kanpaiak an asterakoan,
Ta begiak beeranz makurtzen osoan.

Bala euren begitxo bizi, borobillak,
Ura urin garbira umeak jasoten,
Pampa-pampa eitean txapliu-txupiñak.
Bakar-gau usaintsuan amak dabez artzen.

### IV

*Gau-erdi*

Zortzi, bederatzi... bat geiago... —ta astiro
Gau ordua— eta beste bat... beste bat.
Txakurrak zaunk. Torrean gabontza uluz dago...

Gau-erdia. Galdurik doazan oinkaden
Otsa bikotia... Urrun txit bide-txigorrez
Gurdi bat, ber-bertatik, tenk dana gelditzen...

Dana dago itxirik. Ez dau ezek be erarik,
Itzirik, ez margorik. Dizdiz dagi soillik,
Aubura barikan lo dagoan urian,
Leio batek, niniko aundi bai litzean.

### V

*Bas-eliza*

Iria-burrunbaz doa jentea urtenik
Elizatik, an goian, mendi-gallurrean,
Ta maiatz-arratsean —garbi ta ozinik—
Andrak astiro doaz etxera bidean.

Zeozaz danuz bedar jagien artetik
Ta arin joerak lore-usaia dirudi;
Auna duskie an ibarrean zañik
Kanpai arrosa-mataukaz isil ta mutiri.

Mendi-tontor gozoan ta zumar batzuen
Aldabean, elizak, osto eta abartzan,
Teillatua darakus txit gorri betean.

Airean oraindio otoitz-eskarien
Oiartzun-kulunka da, ta menda-isatzan
Galduaz doa ke-ats gozoa, arean.

## VI

### *Aingeruakaz*

Lilak lore-pinportu ziran dagoneko;
Emaztegai-jantzia josten ak jardungo.

Zeru-lorak oraindik zabaltzen egozan
Eta mimosa etzan itxi oraindikan.

Eta, oi elai baltzak!, beingoan beingotik
Neskatxak barre. Nogaz?, edo-ta zergaitik?

Barreka egoan, bai, bai!, aingeruakaz,
Urre ta larrosa ziran odei areikaz.

## VII

### *Edurtza*

Edurra da, ta aireak zuritan dirdirra;
Txit zuri dago lurra, edur gain edurra.
Zumarrak mingots dabe oiua bialtzen;
Zuritik oskidetza ariña da jausten.

Oñaze ta samiñez aizeak orroa;
Kaleetan Lei-aizeak putz setaz, unaro;
Or umetxoak; negar lako zerbait doa;
Ama bat or digaro; otoitz bat digaro.



## VIII

### *Itxaso*

Leiora urreraturik itxasoa dakust;
Izarrak ba-doaz ta uiñak gora-miñik;
Olaruak ta izarrak dakustaz bakarrik...
Dei biotz-antsi batek, pilpillak erantzun.

Inkesa dagi urak ta aizeak egotsa;
Zidar zurizko zubi-giñen itxasoan;
Zubia dingilizka ur garbi osoan.
Nora daroazu zuk? Norentzako zara?

Euskeraz: *Igotz'ek*